


Chicago besoen indarrez jaso zuten

CHICAGO (AEB), 1854. Kolera izurri bortitzak gogor astindu zuen hiria, nagusiki ur geldi osasungaitzaren erruz. Mende hasieran ezarri ziren lehen kolono frantziarrak Michigan lakuaren ertzean, Des Plaines eta Chicago ibaien artean (hortik hartu zuten hiriaren izena). Handik 30 bat urtera burdinbidea iritsi zen bertara, eta etorkizun oparoaren usainak erakarrita, biztanle kopurua izugarri hazi zen urte gutxian. Kolera iristerako 100.000 biztanle zituen Chicagok. Etxebizitzak neurri eta kontrolik gabe eraiki zituzten. Planifikaziorik gabe, lakuarekiko garaiera alderik ez izateak zekartzan arazoak aurreikusi gabe, hiria lohiak hartu zuen hasieran; izurriek, gero.

Kolerak eragindako triskantzaren ondoren, Ellis S. Chesbrough ingeniariak Bostondik Chicagora bidaiatu zuen, hiriak behar zuen estolda eta isurbide sistema discinatzeko. Baina lakuaren mailarekiko alderik ezean, ia ezinezkoa zen azpiegitura hura jasotzea. Estolderiak hiri azpian egon behar zuen eta, ondorioz, kaleen eta eraikinen maila jaso behar zen. Une horretan bi irtenbide bururatu zitzaizkien: bata, eraikin guztiak bota eta estolderia instalatu ondoren berriro eraikitzea; bestea, aurrez eraikitako bloke gehienak pare bat metro altxatzea.

Eta hiriko arduradunek bigarren aukeraren alde egin zuten, harrigarria badirudi ere. Ideia zentzugabea zirudiena gauzatzea lortu zuten herritar askoren ahalegina lagun eta, besteak beste, George Mortimer Pullmanen



Chicagoko biztanleak Briggs House erakina euren indarrez jasotzen, 1857an edo 1866an.

CHICAGO HISTORICAL SOCIETY

(1831-1897) ekarpenari esker. Pullman gazteak hilkurtza enpresa bat zuen orduan, baina haren aitak Erie lakuaren uholdeetan eraikinak mugitzeko teknika bat erabili zuen urte batzuk lehenago, eta sistema hura ezinbestekoa izan zen hiria altxatzeko proiektu eroak arrakasta izan zezan. Gerora, Pullman are ezagunago egin zen

ohe-bagoia asmatu zuelako, Pullman izeneko hiria sortu zuelako bere langileentzat, eta langile horiek greba entzutsua egin zutelako nagusi megalomanoaren aurka.


Jasotako lehen eraikinak 750 tonako pisua zuen. Pul-tsuan jaso zuten lurretik 1'88 metrora, soilik 200 katu mekaniko eta ehunka langileren indarra erabiliz. Eraikin handienak altxatzeko katu hidraulikoak lortu arren, ia hiri guztia mekanikoekin jaso zuten. Eta behin jasota, zergatik ez batetik bestera mugitu? Zenbait etxejabe kokapen hobea lortzeko baliatu zuten ahalegina; eraikinak enborren gainean errestan eramaten zituzten bate-tik bestera.

Urtetako ahalegin ikaragarriari esker, proiektu erraldoia gauzatu eta Chicagok aintzirako ur mailarekiko beharrezko gorabehera eta estolda sistema egokia lortu zituen, azkenean. Baina 1871n sute batek hiria suntsitu zuen. Kontu handiz eta banan-banan metro pare bat jasotako ia eraikin guztiak jan zituen suak. Orduan, hutsetik astea beste erremediorik ez zuten izan. ■



Arrastoak

Nor zen Alessandro di Mariano di Vanni Filipepi?



SANDRO BOTTICELLI (1445-1510) margolari florentziar ezagunaren benetako izena da Alessandro di Mariano di Vanni Filipepi. “Sandro” izenaren laburdura da eta abizena, aldiz, jatorri zehatzik gabeko ezizena da. Batzuek uste dute anaiarengandik zetorkiola goitizena; anaia zaharrena nahiko gizona zuen margolariak eta

“botticella” (upel) esaten omen zioten, hasieran anaia gizenari soilik, geroago familia guztiari. Beste bertsioak ere anaiarekin du zerikusia. Gaztetan, Sandro haren urregintza tailerrean aritu zen lanean, eta bertan jorratutako ofizioak eman omen zion izengoitia: “battigello” hitzak irabiatzaile esan nahi du. ■